

Bizi garen garai honetan, ia ezinezkoa da berririk jaso gabe bizitzea; irratian entzuten ez baditugu, telebistan ikusten ditugu; egunkarian irakurtzen ez baditugu, ordenagailuan irakurriko dugu; eta, horietan guztietan entzuten edo irakurtzen ez baditugu, garraio-bideetako pantailetan edo telefono mugikorrean emango digute azken albisten berri.

Unitate honen **HELBURUA** da ahozko zein idatzizko berriak ulertzeko hainbat estrategia lantzea. Horretarako, sail desberdinetako berri batzuk entzungo dituzu, eta beste batzuk irakurriko dituzu.

IBILBIDEA



Atarian

Hainbat sail-etako berriak irakurri eta entzungo dituzu ulermen-estrategia batzuk landuz.

Jardunean

Kultura-saileko egunkariko berri bat irakurriko duzu hainbat irakurmen-estrategia baliatuz.

Azterlanean

Aurreko ataletan landu dituzun ulermen-estrategiak aztertuko dituzu; horretarako, egunkariko kirol-saileko albiste bat landuko duzu.



TESTUAK:

- "Txapelketa ikusgarria Zurriolako hondartzan"
- "Musika parkean; mesedez, belarra zapaldu"
- "Seme-alaben zaintza partekatua arautuko dute"
- "Urritik aurrera, argia ordu bakoitzeko prezioaren arabera ordainduko da"
- "Bularreko minbiziaren aurkako tratamendu berria"
- "Irakurri, gozatu eta oparitu" Gipuzkoako Hitza, 2015eko ekainaren 5a (moldatua)
- "Diru kontu bat baino gehiago" Gipuzkoako Hitza, 2015eko ekainaren 4a (moldatua)





ATARIAN

Gaur egun, era askotako euskarrietan entzun edo irakur ditzakegu albisteak: irratan, telebistan, egunkarietan, mugikorrean, ordenagailuan...

Iratik, gaur, lanerako bidean, albiste batzuen titularrak irakurri ditu autobuseko telebistan.

1 Irakurri berrien izenburuak. Zein irudirekin lotuko zenuke bakoitza?



1. Txapelketa ikusgarria Zurriolako hondartzan
2. Musika parkean; mesedez, belarra zapaldu
3. Seme-alaben zaintza partekatua arautuko dute
4. Urritik aurrera, argia ordu bakoitzeko prezioaren arabera ordainduko da
5. Bularreko minbiziaren aurkako tratamendu berria

a. ... b. ... c. ... d. ... e...1


a



b



c



d



e



Iratik irakurri dituen berri guztiak ez dira sail berekoak.

2 Zein sailetan sailkatuko zenuke berri bakoitza?



	1.	2.	3.	4.	5.
Gizartea			X		
Osasuna					
Ekonomia					
Kirolak					
Kultura					

Ordenagailua eskura izan duenean, autobusean irakurritako titularren inguruko informazio gehiagoren bila sartu da irratia bateko webgunean.

3

Berriak irakurri edo entzun aurretik, irakurri koadroko hitzak eta idatzi titular bakoitzaren azpian, zure ustez, berriari aipatuko direnak. Ondoren, aurreikusi, zure ustez, albiste bakoitzean ager daitekeen beste hitzen bat.

1. Txapelketa ikusgarria Zurriolako hondartzan

txapeldun,

2. Musika parkean; mesedez, belarra zapaldu

.....

3. Seme-alaben zaintza partekatua arautuko dute

.....

4. Urritik aurrera, argia ordu bakoitzeko prezioaren arabera ordainduko da

.....

5. Bularreko minbiziaren aurkako tratamendu berria

.....

Irratiko webgunean, lehenengo hiru berrien laburpenak irakurri ditu.

4

Irakurri albiste bakoitzaren laburpena. Erabiltzen al dituzte aurreikusitako hitzak? Azpimarratu.

Aurrezagutza piztea

Berri batean zer hitz ager daitezkeen aurreikusteak albistearen hobeto ulertzen laguntzen digu.

ESTRATEGIA

txapeldun
kontzertu
argindar
kontagailu
surf
gizarte
gaitz
botika
proba
% 37
natura-baliabide
adingabe
hezi
laborategi
ekimen



TXAPELKETA IKUSGARRIA ZURRIOLAKO HONDARTZAN

[Irakurri hitza](#) | [Posted by Albisteak](#) | [Posted in Albisteak](#)

Josune Irazola eta Eneko Landa izan ziren surf-zirkuituko lehenengo probako txapeldunak. Atzokoan izan ziren olatu erraldoiei eta zirkuituan ezarritako berrikuntzei esker, azken boladako lehiaketa ikusgarrienetako bat izan genuen.

[AUDIO MP3](#) | [Edukiak erregistratu](#) | [Entzun hitza berri](#) | [Deskargatu](#)



MUSIKA PARKEAN; MESEDEZ, BELARRA ZAPALDU

[Irakurri hitza](#) | [Posted by Albisteak](#) | [Posted in Albisteak](#)

Musika Parkean ekimena, aintzat hartzekoak diren bi ardatz uztartuta sortutako ekimena da: batetik, natura-baliabideak, parkeak, alegia; eta bestetik, herrian berez dagoen musika-kultura. Horrenbestez, bi ardatz horiek batuta, bi kontzertu antolatuta dituzte uda sasoirako.

[AUDIO MP3](#) | [Edukiak erregistratu](#) | [Entzun hitza berri](#) | [Deskargatu](#)



SEME-ALABEN ZAINTZA PARTEKATUA ARAUTUKO DUTE

[Irakurri hitza](#) | [Posted by Albisteak](#) | [Posted in Albisteak](#)

Senar-emazteen banantze-kasuetan, salbuespenezkoa izateari utziko dio haurren zaintza partekatua. Gizartean gertatutako aldaketetara egokitu nahi dute legea, eta adingabeak bi gurasoekin egotea, biek baitute seme-alabak hezteko eskubidea eta betebeharra.

[AUDIO MP3](#) | [Edukiak erregistratu](#) | [Entzun hitza berri](#) | [Deskargatu](#)

4. eta 5. albisteak, argia fakturatzeko sistema berriaz eta minbiziaren tratamendu berriaz hitz egiten dutenak, interesgarriak iruditu zaizkio, eta entzun egin ditu.

5 Entzun 4. berria. Aurreikusitako hitzak erabili dira? Zein?

1

6 Orain, entzun berriro eta aukeratu galdera bakoitzaren erantzun zuzena.

1

1. Zer argitaratu dute Estatuko Aldizkari Ofizialean?
 - a. Argindarraren fakturazio-sistema ez dela aldatuko.
 - b. Argindarraren fakturazio-sistema berria jarriko dela indarrean.
2. Noiz jarriko da indarrean?
 - a. Uztailaren batean jarriko da indarrean.
 - b. Urriaren batean jarriko da indarrean.
3. Zer berrikuntza dakar sistema berri honek?
 - a. Kontsumitzaileak une jakin batera egokitu ahal izango duela kontsumoa.
 - b. Kontsumitzaileak egun jakin batera egokitu ahal izango duela kontsumoa.
4. Zenbat aurreztuko dute kontsumitzaileak?
 - a. Diru dezente aurreztuko dute.
 - b. Oraindik ez dakite sistema berri honekin argindarraren fakturan zenbat aurreztuko den.



7 Entzun 5. berria. Aurreikusitako hitzak erabili dira? Zein?

2

8 Orain, entzun berriro eta erantzun galderei.

2

1. Zer aurkitu dute? *Bularreko minbizi-kasu larrienetarako tratamendua aurkitu dute.*
2. Nork aurkitu du?
3. Probatu dute gizakiekin?
4. Noiz jakingo dugu gizakiongan eragina duen?
5. Bularreko minbizia duten gaixo guztientzat balio du?

9 Interesatzen bazaizu, entzun 4. ariketako hiru berrietako bat.
Aipatu al dituzte aurreikusi dituzun hitzak? Jaso al duzu espero ez zenuen informaziorik?

3-5

